

I Unibertsitate arteko Eztabaida Txapelketa

2011/04/14

Hiru unibertsitatek parte hartuko dute, bakoitzak talde banarekin: UPV/EHUK, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak.

Saioan hiru eztabaida izango dira (talde guztiak guztien aurka, binaka), gai bakarraren inguruan: "Soluzio egokia izan al da AHTa Euskal Autonomia Erkidegoko garraio-arazoentzat?".

Taldeek hamabost egun izan dituzte gaiaren inguruko dokumentazioa biltzeko eta hala aldeko nola kontrako argudioak prestatzeko. Bakoitzak aldeko nahiz aurkako jarrera defendatu beharko du, zozketaz, eztabaida bakoitzean, eta eztabaida gehien irabazten duena izango da garaile.

Lehenengo saria 1000 eurokoa izango da, bigarrena 500 eurokoa eta hirugarrena 250 eurokoa.

Mondragon Unibertsitatea ordezkatuko duten ikasleak, Jon Saez, Maite Legarra, Elliott Ganchegui eta Gorka Aizpuru dira.

